

ASTIALDIA > **EUSKAL HERRIKO TXOKOAK**

Bolintxu haranetik abiatzen da Pagasarri egin daitekeen ibilbiderik ikusgarriena. MIKEL CARRAMIÑANA

Bilboko mendizaleen **gotorleku**

Bilbotarren aisialdirako leku nagusietako bat da gaur egun Pagasarri mendia, garai batean ontziolek egurrez hornitzeko erabili zuten arrazoi berberarengatik: gertutasunagatik.

MIKEL CARRAMIÑANA
Bilbo

Esaera zaharraren arabera, bizitza oparo baten emaitzak hiru izan behar dute: zuhaitza landatu, liburu bat idatzi eta seme-alabaren bat izatea. Bilbotarrek, gainera, badi-tuzte bestelako eginkizun garrantzitsu batzuk, bizitzan behin, gutxienez, burutu beharrekoak: San Mames futbol zelaira joan, Begoñako basilika bisitatu eta,

garrantzitsuenetarikoa, Pagasarri mendira igo. Urte osoan ibiltzen dira mendizaleak bertatik, eta milaka dira udako hilabeteetan. Urtean behin, abenduan, Bilboko Mendi Astearen barruan Pagasarriko Ibilaldia antolatzen dute, 10.000 lagunetik gora biltzen dituen jaialdi ospetsua.

Ganekogorta mendigunean dago bilbotarrek gehien estimatzen duten mendia, parkean aspaldi eraldatutako Artxanda alde batera utzita, eta Bizkaiko hiriburua ez ezik, Alonsotegi eta Arrigorriagara zabaltzen ditu bere hegaleak. Pagasarri 671 metro ditu, eta Ganekogortak ia mila (998) ditu. Horregatik, mendizale traketsek lehenengoa hautatzen dute txango errazak egiteko. Izan ere, Bilboko auzoak mendirantz zabaltzen joan diren heinean, gero eta gehiago hurbildu da hiria mendi tontorrera. Hala, bi ordu inguru baino ez dira behar Zabalburu plazatik,

abiapunturik ohikoena Pagasarri-rako bidean, tontorreko aterpetxera heltzeko. Alferrenek, gainera, autoz egin ahal dute aldaparen tarte bat.

Mendi tontorrera erraz heltzearen abantailarik handiena da bertan lasai bazkaldu eta ordu batzuk inguruak aztertzeke erabili daitezkeela. Bizkaia eta Araba bereizten dituen Ganekogortaren tontor zoragarria ikus daiteke bertatik, eta inguruko mendiak osatzen duten ikuspegi zoragarria. Zenbait animalia topatuko dituzte bertan mendizaleek, behiak eta zaldiak batez ere, baina, zortea izanez gero, baita arranoren bat ere zerruan. Inoiz, basurdeak ere azaltzen dira Pagasarriko gailurrean,

eta bisitariren batek ezusteko ederra hartu izan du.

Nekatuz gero, eta bazkalordua tontorrean egin nahi dutenek hobe dute jatekoa etxetik eraman, baina, udako hilabeteetan batez ere, aterpetxeko atea zabalik topa daitezke, eta bertan sagardo freskoa edan edota gazta ogitartekoak jan daitezke. Erdi Arotik bertan etxola modukoak egin dituzte, baina Pagasarriko lehenengo aterpetxe modernoa 1914an egin zuen Bilboko Udalak eta handik bost urtera berregin zuten, taberna eta jate-txe gisa. Sabela bete ondoren, XVII. mendeko izoztegiak, Tarin iturria eta gailurreko postontzia bisita daitezke.

PAGOEN MENDIA. Ikerketa arkeologi-

koek ezagutzera eman dutenez, euskal artzainak duela milaka urte, Brontze Aroan, ibiltzen ziren Pagasarriko landetan euren artaldekin. Garai hartan, pagadiak estaltzen zituzten gaur egun biluzik ageri diren Pagasarriko maldak. Euskal Herriko kostaldeko beste mendi ugarietan bezala, ontzigin-tzaren loraldiak, XVII. mendetik aurrera, basoen gainbehera ekarri zuten. Bilbon, Zorrotzako kaian 40 gerraontzi baino gehiago eraiki zituzten 1610. urtetik 1630era bitartean. Horietako bakoitzak 6.000 zuhaitzen egurra behar zuen eta, asko, Pagasarri bota zituzten. Horrez gain, XVIII. mendeko Karlismaldietan inguru hartan gertatutako bataila eta suteek mendi honetako baso ondasunak desagerrarazi zituzten.

XIX. mendean ekin zioten erakundeek zuhaitzak landatzeari, baina bertako espezieen lekuan pinuak eta eukaliptoak jarri zituz-

Pagasarriko Ibilaldia jaialdi ospetsua da, eta 10.000 lagunetik gora biltzen ditu urtean behin

Tontorrera iristea erraza da, eta horrek lasai bazkaldu eta inguruak ezagutzeko aukera ematen du